

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Andoni Sagarna Izagirre

*Donostia,
Gipuzkoa
(1947)*

Aurkibidea



Biografia



Donostian jaioa, Aldakonea kolean. Aita donostiarra zuen eta ama Lazkaokoa, 14 urterekin hiriburura lanera joandakoa. Seme bakarra da Andoni. Jesuitetan ikasi zuen, gaztelaniaz, baina umetatik ezagutu zuen euskal giroa etxean: gurasoek eta aitona-amonek (beraiekin bizi ziren) euskaraz hitz egin zioten beti (aitak kamustuta zeukan euskara berreskuratu zuen, emaztearekin eta semearekin erabiltzeko). Auzoan bertan ere harreman dezente zituzten euskaraz: bizilagunekin, okinarekin, harakinarekin, esne saltzailearekin... Donostiako giroa oro har erdalduna izanagatik. Industria-ingeniaritza ikasi zuen, baina euskararen aldeko hamaika lanetan ere jardun du bere ibilbidean zehar: euskara irakasten eta euskarazko materiala sortzen, besteak beste (hiztegiak, enziklopediak, ikastoletarako materiala...). Zientzia eta euskara uztartu ditu. Elhuyar taldearen sortzaileetako bat izan zen eta UZEIn jardun zuen lanean. Euskaltzaindian ere hainbat ardura izan ditu; 80ko hamarkadatik euskaltzain urgazlea da eta euskaltzain osoa 2006. urtetik. Mari Karmen Aranbururekin ezkondu zen (ikastolako andereño izandakoa) eta hiru alaba izan zituzten. Urteak daramatzate Usurbilen bizi izaten.

Zintak

DON-212

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2021-10-25

- **Iraupena:** 121 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Gurasoen jatorria eta euskararekiko jarrera

- **Erref:** DON-212/002
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 00:00:16. **Bukatu:** 00:04:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Donostian jaio zen, Aldakonea kalean. Aita donostiarra zen. Ama Lazkaokoa, baina 14 urterekin Donostiara lanera joandakoa. Bai gurasoak eta baita aitona-amonak ere euskaldunak ziren. Aitak euskara apaldua zuen bera jaio zenean, baina euskara berreskuratzeko erabakia hartu zuen. Etxean euskara zen ohiko hizkuntza.

2. Donostian bazegoen euskaraz egiteko aukera

- **Erref:** DON-212/003
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:04:00. **Bukatu:** 00:07:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Auzoan, Aldakonea kale inguruan, familia euskaldun asko zeuden. Erosketak eta bestelako kontu asko Grosen egiten zituzten eta bazuten euskaraz egiteko aukera: okinarekin, harakinarekin... Ez zegoen euskaraz egiteko debeku zuzenik, baina ez zegoen euskarazko hedabiderik, ikastolarik... sarri kontu folklorikoekin lotzen zen (Santo Tomasetako euskarazko antzerkia, bertso-saioak...). Torrealdaik `El libro negro del euskera´n azaltzen du Francok ez zuela nahi euskara modernizatzerik. Ikasketa guztiak gaztelaniaz egin zituen arren, ikaskideekin euskaraz egiten zuen. Hala ere, bazeuden konplexuagatik-edo euskaraz egiten ez zutenak.

3. Gaztelania nagusi hezkuntzan; jesuita euskaldunak

- **Erref:** DON-212/004
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:07:40. **Bukatu:** 00:10:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Ume gutxi batzuk ikastolan ibiltzen ziren, baina gainontzeko gehienak ikastetxe erlijiosoetan. Gaztelania zen nagusi hezkuntzan, baina ume euskaldunek euskaraz egiten zuten elkarrekin eskolatik kanpo. Irakasleekin gaztelaniaz egiten zuten, nahiz eta baziren irakasle euskaldun gutxi batzuk. Berak Jesuiten eskolan ikasi zuen. Baziren bi irakasle euskaraz bazekitenak; haietako batek froga bat egin zion, euskaraz zenbateraino zekien jakiteko. Aita Goenaga.

4. 1965 ingurua euskararen irakaskuntzan mugarri

- **Erref:** DON-212/005
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:10:40. **Bukatu:** 00:14:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Euskararen irakaskuntzaren egoera 1965 inguruan aldatu zen. Aurretik baziren ikastolak: Elbira Zipitriarena eta geroago Goiarena. Eta euskara eskolak ematen zituztenak ere bai: Maria Dolores Agirre, Euskal Iztunde eskolan, eta Markel Izagirre, Diputazioan. Izagirrek euskara irakasteko tresnak ere sortu omen zituen. 1965 inguruan Jon Oñatibia oiartzuarrak Ameriketara ikasitako hizkuntzak irakasteko metodoak baliatu zituen euskararentzat. "Método de euskera radiofónico" materiala kaleratu zuen eta ikastaroa antolatu. Ikastaro hori egin ostean, euskara klaseak ematen hasi ziren.

5. 1965-1968 bitartean euskara klaseak ematen

- **Erref:** DON-212/006
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:14:25. **Bukatu:** 00:17:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

1965-1968 bitartean euskara klaseak ematen aritu ziren. Ez zuten dirurik jasotzen klaseak ematearren eta utzitako lekuetan ematen zituzten klaseak. Horietako batzuk aipatzen ditu. Ikasle batekin gertatutako anekdota. 1968an, salbuespen egoera ezarri zenean, Martutenera eraman zuten eta lau hilabete egin zituen atxilotuta. Orduantxe hasita zeuden euskara batuaren lehen urratsak eta Martutenen bertan alfabetatze klaseak eman zituzten. Joseba Arregirekin batera egon zen han eta hark aipatu zion Rikardo anaiak berarekin egon nahi zuela.

6. Rikardo Arregi; euskarazko alfabetatzearen hasiera

- **Erref:** DON-212/007
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:17:33. **Bukatu:** 00:19:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Rikardo Arregi jende bila zebilen. Batetik, euskaraz idazteko. Andoni soziologia kontuak irakurtzen zebilen garai hartan eta hortaz idazteko eskatu zion. Halaxe idatzi zuen liburu bat Lur argitaletxearentzat. Horrez gain, euskarazko alfabetatzea ere martxan jarri nahi zuen. Euskaltzaindiari proposatu zioten hori bultzatzea eta, ontzat eman ostean, Aingeru Irigarai jarri zuten arduradun gisa. 1969an Rikardo hil egin zen istripuz. Andoni ingeniari itza ikasten zebilen eta eskolan zerbait egiten hasi ziren (hitzaldiak, klaseak...), baina 1970ean soldadutzara joan beharra izan zuen.

**7. Alfabetatze ikastaroetarako materiala sortzen
Gordailuren bulegoan**

- **Erref:** DON-212/008
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:19:39. **Bukatu:** 00:22:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Soldadutzan, zorte onez, Donostiara egokitu zitzaion. Ordurako Joxe Bernardo Jauregi eta Mikel Arregi alfabetatze kontuetan zebiltzan Donostian eta haiekin batera hasi ziren, baina Gipuzkoa osorako. Hasieran etxebizitza batean izan zuten bulego txiki bat, baina garesti ateratzen zitzaaien eta Gordailukoek zuten bulegoa partekatu zuten gero, gastuak banatzeko. Gordailu zer zen; ikastoletarako materiala sortzeko bulegoa eta material didaktikoa saltzeko denda. Arantxa Allur. Alfabetatze ikastaroetarako materiala sortzen jardun zuten eta 'Lehen Urratsak' kaleratu zuten. Bateratze bilerak Eibarko Arrate Kultur Elkartean. Imanol Laspiur.

8. 1971n etena euskarazko alfabetatzean

- **Erref:** DON-212/009
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:22:38. **Bukatu:** 00:24:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

1971n ingeniarietza ikasketak amaituta zituen eta Arrasateko Eskola Politeknikora joan zen irakasle lanera. Astea han pasatzen zuen familiarekin eta asteburuetan itzultzen ziren Donostiara. Euskarazko alfabetatze kontuak politizatzen ari zirela eta, Euskaltzaindiak Arrasaten egin zen bilkura batera deitu zituen. Alfabetatzea berrantolatu behar zela eta batzorde batzuk sortuko zituztela esan zen, baina ez zen hala izan eta ordura arteko alfabetatze-eredua eten egin zen.

9. Ingeniaritza gaiak euskaraz jartzeko kezkatik Elhuyarren sorrera

- **Erref:** DON-212/010
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:24:14. **Bukatu:** 00:27:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

Ingeniaritza eskolan zebilenean sortu zituzten euskarazko eskolek jarraipena izan zuten ondorengo belaunaldietan. Eta, gainera, beste kezka bat sortu zen: ikasten zuten gai hartaz ezin zutela euskaraz jardun. Orduan ikasle ziren Mikel eta Kepa Zalbide anaiak eta lehendik ikasketak eginak zituztenak biltzen hasi ziren larunbat arratsaldeetan. 20 urtez jarraitu zuten biltzen eta bilkurei Elhuyar taldea jarri zioten izena. Bilerak non egiten zituzten. Hasieran ingeniarietza ikasketak egindakoak biltzen ziren, baina pixkanaka esparru gehiagotako jendea bildu zen.

10. Ekain kooperatibatik Uzeira

- **Erref:** DON-212/012
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:28:03. **Bukatu:** 00:31:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

Ingeniaritza ikasketak amaitzean, Arrasatera joan zen irakasle lanera. Hango zenbait irakaslek Usurbilen enpresa bat sortzea pentsatu zuten, Siadecok egindako ikerketa sozioekonomiko baten harira. Ikerketa horretan ikusten zen bertako lantegiak ez zeudela oso aurreratuta eta beste era bateko lantegiak sortzea komeni zela. Ekain kooperatiba sortu zuten Usurbilen (gaur egun Berriola) eta Usurbilera joan zen bizitzera familiarekin. Han zebilela, ordu libreetan Uzeirentzat lanak egiten zituen. Azkenean, Joseba Intxaustik zirikatuta, hango lana utzi eta Uzein hasi zen lanean. Hamaika urte egin zituen bertan.

11. Elkar, Eusenor, Plazagunea

- **Erref:** DON-212/014

- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:32:10. **Bukatu:** 00:35:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Uzein lanean ari zela, harreman handia zuten Elkarrekin, hiztegiak kaleratzen zizkietelako. Euskarazko entziklopediak behar zirela-eta, Eusenor izeneko enpresa sortu zen eta zazpi urte inguruan jardun zuen bertan lanean. Digitalizazioa indarra hartzen hasi zenean, Elkarren sartu zen zuzenean eta Plazagunea enpresa sortu zuten. Beste zazpi bat urtez han jardun ostean, Elkarren antolaketa lanetara pasa zen eta lan horretan jardun zuen jubilatuta arte.

12. Denaren beharra: andereñoen erresidentzia, Ez dok Amairu...

- **Erref:** DON-212/016
- **Iraupena:** 0:05:32. **Hasi:** 00:35:42. **Bukatu:** 00:41:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Ez dok Amairu, Kantagintza berria. Ilusio handiz bizi izan zuten. Andereñoen erresidentzia. Bere emaztea bertara etorri zen, Magisteritza ikastera. Nola ezagutu zuen. Euskararen inguruan zer bait egin nahian zebiltzanak, gehiago edo gutxiago, elkartu egiten ziren. Nola hasi ziren andereñoen erresidentziakoekin harremanetan. Luxuzko eskola zen: Pako Garmendia, Oteiza arte kontuetan, Juan Mari Lekuona... jende oso ona zegoen, gai ezberdinak lantzeko. Txilardegiren anaiak irakasten zien marrazketa. Ez dok Amairukoekin ere bazuten harremana. "Denaren beharra zegoen".

13. Plazido Mujikaren hiztegia esanguratsua izan zen berarentzat

- **Erref:** DON-212/017
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:41:14. **Bukatu:** 00:43:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Berarentzat esanguratsua izan zen gertaera azaltzen du. Ingeniaritza ikasten hasi zenean, 1964ko urrian, Plazido Mujikak gaztelania-euskara hiztegia atera zuen. Liburua atera ahal izateko harpidetzak bideratu zituen eta Andoniren aita harpidedun egin zen. Bera joan zen liburua jasotzera. Ez zegoen beste euskarazko hiztegirik eta hura eskuartean izateak ilusioa piztu ziola kontatzen du.

14. Antzerki mugimendua; Auspoa bildumako liburuak saltzen

- **Erref:** DON-212/019

- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:43:46. **Bukatu:** 00:45:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Antzerki mugimendua. Euskal Iztundeak Santo Tomas egunean antzoki zaharrean egiten zuen antzerkia. Jesuitetan ikasten ari zela, Antonio Zabalaren Auspoa bildumako liburuak saltzera joan zen behin antzoki zaharrera, baina ez zuen haien obrarik ikusi. Jarrai taldearenak bai, geroago; Xabier, Lete, Goñi...

15. Gerraosteko politikak ez zuen modernotasunik nahi; Labegerie; sinbolismoa kantetan

- **Erref:** DON-212/020
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:45:23. **Bukatu:** 00:48:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Gerraosteko politikak ez zuen onartzen modernotasunik; folklorea bakarrik onartzen zen eta puntu bateraino: Jose Artetxeren "Charlas para nuestros baserritarras", Basarriren "Nere bordatxotik"... Antzerki modernoa edo musika modernoa euskaraz, nobedade handiak ziren. Labegerieren kantak: modu erabat klandestinoan sartzen ziren Iparraldetik. Protesta kanten hasiera. Sinbolismo handia erabiltzen zen hitzetan. Behin "Nire aitak amari gona gorria ekarri" zentsuratu zutela kontatzen du. Giro itogarria zegoen eta euskal kutsuko edozer gauza zen susmagarri.

16. Lur argitaletxea; euskarazko lanak falta

- **Erref:** DON-212/021
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:48:24. **Bukatu:** 00:49:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Rikardo Arregik eskatuta Lur argitaletxearekin liburu bat kaleratu zuen, baina ez zuen harreman handirik izan bertako kideekin. Bi ildo nagusi zituen argitaletxeak: euskal literatura eta saiakera euskaraz. Momentu hartan arazoa idazleak falta zirela zen.

17. Gerraosteko prentsa; euskarazko prentsan izan zuen partaidetza

- **Erref:** DON-212/022
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:49:49. **Bukatu:** 00:53:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Orduko prentsa: "La voz de España", "Unidad", "Diario Vasco"... euskaltasunik gabekoa. Irratian ere oso gauza txikiak egoten ziren euskararen inguruan: "Radio San Sebastian"en (gaur egun SER), "Charlas para nuestros

baserritarras", "La voz de Guipuzcoa"n Basarriren saioak... Euskarazko prentsa. Berak ere zerbait idatzi izan zuen `Zeruko Argia´n, `Anaitasuna´n, `Jakin´en... Arantzazuko aldizkariak gauza txiki batzuk izaten zituen euskaraz. `Anaitasuna´, Bizkaia aldetik etorria; Imanol Berriatua, Kintana... Ez du gogoan nola bidaltzen zituen idatziak, baina ziurrenik eskuz idatzita postaz. Orduan ez zen idazmakinarik.

18. Lankide Aurrezki Kutzak emandako diru-laguntzarekin kopiagailua erosi zuten

- **Erref:** DON-212/023
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:53:20. **Bukatu:** 00:54:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Alfabetatzean ibili zenean, 1969-1970ean, ez zegoen fotokopiagailurik eta Lankide Aurrezkiak emandako diru-laguntzarekin kopiagailu bat erosi behar izan zuten. Nola ibiltzen ziren: makinaz idatzi, zuzenketak eskuz egin, azazkalak margotzeko lakarekin akatsak estali...

19. Argia dantza-taldekoekin txistulari; soldadutzako anekdota

- **Erref:** DON-212/025
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:54:13. **Bukatu:** 00:55:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Argia dantza-taldearekin harremana. Bixente eta Juan Mari Beltran txistulariekin harremana zuen eta berak ere txistuarekin kanta batzuk jotzen ikasi zuen. Ikasitakoa ondo etorri zitzaion soldadutzarako, bertan bandako kide izan baitzen. Horri esker "clases de moral militar" delakotik libratzen zen.

20. Euskara batuaren sorreran h-arekin eztabaidak; 1978ko kongresuko hitzaldia

- **Erref:** DON-212/026
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:55:17. **Bukatu:** 00:57:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

Euskara batuaren sorreran eztabaida handia egon zen h-arekin. Bera Euskaltzaindiarekin bat zetorren. 1978an Bergaran egin zen Euskaltzaindiaren kongresua. Siadecok euskara batuaren onarpenaren inguruan egindako galdeketa inguruko txostena egitea eskatu zioten. Sekulako datu pila pasa zizkioten eta horien interpretazioa egin behar izan zuen, gero txostena egin

eta hitzaldia emateko. Hitzaldian h-aren aurka zegoen apaiz baten galderatik sortutako iskanbila.

21. Elbira Zipitria, gauza askoren aurka

- **Erref:** DON-212/027
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:57:56. **Bukatu:** 00:58:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen historia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Elbira Zipitria h-aren kontra zegoen. Gauza batzuetarako aurrerakoia zen, baina beste gauza batzuetarako atzerakoia. Esaterako, Nemesio Etxanizek gitarrarekin lagunduta abesten zituen euskarazko kantak eta hori ez zitzaion batere gustatzen.

22. Gerra aurreko eta osteko euskara-ereduak

- **Erref:** DON-212/029
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:59:15. **Bukatu:** 01:01:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Gerra aurretik sabindarren euskara eredu ari zen zabaltzen. Bere osaba batek idatziz erabiltzen zuen euskara ulergaitza egiten zitzaion batzuetan. Horrez gain, ahozko euskara zegoen, tokian tokikoa. Gerrak eten handia eragin zuen eta gerraostean Azkueren bidetik etorritako beste eredu batek hartu zuen indarra. Aurreko eredu horretako jendea zela batez ere h-aren aurkakoa dio.

23. Euskara batuaren sorrera eta euskalkien arteko distantzia

- **Erref:** DON-212/030
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 01:01:03. **Bukatu:** 01:04:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Euskara batua sortzerakoan gipuzkera eta lapurtera hartu ziren oinarritzat, eta bizkaiera albo batera geratu zen. Horrekin ere eztabaidak sortu ziren. Koldo Mitxelenak euskalkien arteko distantziaz zioena. Berak uste du denborarekin gaindituaz joan dela. Euskal dialektologoez ez dutela etorkizunik dio, gaur egun beste eremu batzuen arabera ezberdintasun handiagoak sortzen

direlako (aktibitateen edo adinaren arabera, esaterako) euskalkien artean baino. Bergarako euskararen inguruko anekdota.

24. Euskararen inguruan zebilen edonor susmagarri I

- **Erref:** DON-212/033
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 01:05:04. **Bukatu:** 01:08:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Gerraosteko giro politikoaren ingurukoak. Giroa itogarria zen, euskararen inguruan zebilen edonor zen susmagarri. Horrez gain, herritarren artean ere susmo txarrak zeuden, bai alderdi batekoekin eta bai bestekoekin. Bera ez da inoiz alderdi politiko bateko kide izan. Inplikazio politikorik izan gabe ere, lau hilabete pasa zituen Martuteneko kartzelan eta alde eginda ere ibili behar izan zuen, guardia zibilak bere lantokira joan zirenean. Egoera horiek neke fisikoa eta psikologikoa eragiten dute. Geroago Egunkaria ixtera joan zirenean bizitakoak.

25. Euskararen inguruan zebilen edonor susmagarri II

- **Erref:** DON-212/035
- **Iraupena:** 0:05:46. **Hasi:** 01:09:15. **Bukatu:** 01:15:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Poliziarekin pasatako estutasunak. Arrasaten lanean zebilela, Parisera joan behar zuela eta Gobernu zibilera pasaportea zigilatzeraz joan zenean bizitakoak. Beste behin, Arrasaten bizi zirela, guardia zibilak joan zitzaizkien etxea miaztera. Gerora jakin zuten gau hartan guardia zibil bat hil zutela. Behin fitxa bat irekitzen zizutenean, fitxa horrek iraun egiten zuen urteetan. Euskara politizatu egin da eta, inplikazio politikorik eduki ez arren, beti susmopean zeuden. Sasoi gogorra bizi izan zuten, beti beldurrez.

26. Gurasoen Gerra Zibileko bizipenak

- **Erref:** DON-212/036
- **Iraupena:** 0:03:56. **Hasi:** 01:15:01. **Bukatu:** 01:18:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gurasoek garai gogorra bizi izan zuten, gerraren erruz. Amaren gerrateko

bizipenak; Donostiako jatetxe batean zebilen lanean. Familia banatuta geratu zen: batzuek Bizkaia aldera ihes egin zuten; aita gaixorik Lazkaon. Ama lehenbizi Abadiñora, gero Artzentalesera eta gero Santanderrera joan zen eta handik barkuan Bordelera. Donostiara itzuli ahal izateko, Lazkaoko idazkariak agiri bat egin behar izan zion. Aitak, berriz, Zornotzako Izar lantegian jardun zuen lanean militarizatuta.

27. Familia batzuetan gerrako kontuak isilean

- **Erref:** DON-212/037
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 01:18:57. **Bukatu:** 01:21:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gurasoek askotan kontatzen zituzten gerrako kontuak. Etxe batzuetan kontu horiek isildu egiten ziren, umeei kalean kontatuko ote zituzten beldurrez. Emaztearen familiak gerra sasoian bizitakoak. Aita Olaberriko idazkaria zen. Salatu egin zuten eta fusilatzeraz zaramaten, baina senide karlista batzuei esker fusilatu beharrean Francoren tropekin eramatea lortu zuten.

28. Aitaren gerrateko bizipenak: Izar lantegian militarizatuta, bonbardaketak...

- **Erref:** DON-212/038
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 01:21:37. **Bukatu:** 01:24:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Aitaren gerrateko bizipenak. Zornotzako bonbardaketa bizi izan zuen. EAJko Belaustegigoitia zen aitak lan egiten zuen Izar lantegiko nagusia; haren bitartez, langileak frontera joan beharrean, lantegian jarraitu zuten, militarizatuta. Belaustegigoitiak eta haren txoferra zen Joxe Domingo Idigorasek (Jon Idigorasen aitak) Durangoko bonbardaketan bizitakoa. Gose handia pasa zuten. Behin erdi usteldutako behia jan omen zuten. Ebakuatuta Bilbon lanean jardun zuteneko pasarteak. Gurasoek gerra sasoiko kontu asko kontatzen zituzten.</p>

29. Gurasoek politikarekin loturarik ez

- **Erref:** DON-212/039
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:24:50. **Bukatu:** 01:26:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Gurasoek gerrako kontuak bizipen arrunt gisa kontatzen zituzten, sekula ez politizatuta. Aitak euskara berreskuratzea erabaki zuen, baina ez zen erabaki politikoa izan, euskara maite zuelako baizik. Gogoan du Labaienen "Compendio de la obra Euskaldunak de Orixe" liburua zutela etxean.

30. Gurasoen sasoian euskaldun asko Grosen: dendariak, bizilagunak

- **Erref:** DON-212/041
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 01:26:54. **Bukatu:** 01:29:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Euskara » Euskararen egoera
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Gurasoen sasoian bazegoen euskaldunen arteko ezagutza. Batzuk baziren bereziki euskararen alde egiten zutenak; adibiderako, Alvarez drogeriakoa. Herritar asko Gipuzkoa barrualdetik Donostiara lanera etorriak ziren. Euskaldunak ziren hainbat saltzaile aipatzen ditu. Euskaldun asko zegoen Grosen, baita bizilagunen artean ere. Altza, Aiete... beste auzo batzuk ere oso euskaldunak ziren.

31. Gurasoen sasoian euskaldun asko Grosen: erre kardariak, baserritarrak, garbitzaileak...

- **Erref:** DON-212/042
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 01:29:54. **Bukatu:** 01:32:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Euskararen egoera
- Natura » Ingurugiroa » Zaborren kudeaketa

Laburpena:

Gurasoen sasoian baserritarrekin harremana handiagoa zen. Errekardariak ibiltzen ziren, hainbat gai saltzen. Amari barazkiak ekartzen zizkietenak Berastegikoak ziren, euskaldunak. Esnea saltzera ere baserritarrak etortzen ziren eta haiekin ere euskaraz aritzen ziren. Zabor-bilketaren ingurukoak. Ez zen zabor asko sortzen, ekonomikan erretzen zelako. Baserritarrek txerri-jana eramaten zuten. Kale-garbitzaileetako bat arbizuarra, euskalduna. Sutarako egurra ekartzen zuena Txubillokoa (Igeldo). Bizkaieraz egiten zutenak ere baziren.

32. Beraiek euskaraz bizi ziren, baina baziren beste giro batzuk ere

- **Erref:** DON-212/044
- **Iraupena:** 0:04:03. **Hasi:** 01:33:28. **Bukatu:** 01:37:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Bere haurtzaroan euskaraz bizi ziren Grosen. Beste batzuek, berriz, ez zela euskararik entzuten kalean eta etxean bakarrik egiten zutela diote. Euskaldunen arteko harreman sarea garrantzitsua. Amak ahal zuenarekin euskaraz egiten zuen; beste zenbaitek agian prestigioagatik gaztelaniaz. Umetako anekdota. Giro ezberdinak zeuden batetik bestera. Zazpi urte zituela, bilbotar batzuek euskaraz entzun zuten eta harrituta geratu ziren. Donostian aberats-etxeetan neskame euskaldunak egoten ziren.

33. Frankismoaren eboluzioa; Franco Donostian

- **Erref:** DON-212/045
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 01:37:31. **Bukatu:** 01:40:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Frankismoaren eboluzioaren barruan garaiak eta garaiak daudela eta progresio bat egon zela dio. Franco Donostiara joaten zenean egoten zen giroa. "El pez chico" deituriko umeentzako arrantza lehiaketa egoten zen garai hartan. Franco zetorrela eta umeak ere bidali egiten zituzten.

34. II. Mundu Gerraren eragina eta ondorengo aldaketak

- **Erref:** DON-212/048
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 01:40:49. **Bukatu:** 01:42:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Alemaniarren alde edo kontra ibiliak

Laburpena:

40ko hamarkadan II. Mundu Gerra. Hitler, Mussolini. Frankistak harro-harro zeuden garai horretan. Alemanak Donostian. Bere aitaren nagusia alemana zen, baina Hitlerren aurkakoa eta Gestapo bere atzetik ibili zen Donostian. Amerikarrak indarra hartzen joan zirenean eta munduko giroa aldatzearekin batera, aldaketak hasi ziren pixkanaka, nahiz eta frankismoak aurrera jarraitu.

35. Euskararen biziraupena, mirari bat

- **Erref:** DON-212/049
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 01:42:06. **Bukatu:** 01:43:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskararen biziraupenaren inguruko gogoetak. Mirari bat iruditzen zaio Erromatar inperioarekin batera bizi izandako hizkuntza bat oraindik bizirik egotea eta egoerarik txarrean berreskuratzeko urratsak ematea. Askotan kontrako egoerek aldeko mugimendua ekartzen dute. Erosotasunak, berriz, moteltzea.

36. 60ko hamarkadan hondoa jo ondoren, gorakada

- **Erref:** DON-212/050
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 01:43:50. **Bukatu:** 01:46:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

60ko hamarkadan euskal kulturaren loraldia. Hondoa jo ostean, gorakada etorri zen pixkanaka. 1964an Plazido Mujikaren gaztelania-euskara hiztegia ikusi zuenean, esperantza piztu zitzaion. Ez daki ziur zerk eragin zuen aldaketa, agian bizinahiak.

37. 1969an euskara ikastaro garrantzitsua Urretxun

- **Erref:** DON-212/051
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 01:46:00. **Bukatu:** 01:47:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Oñatibiaren metodoarekin ibili zen euskara eskolak ematen. Andereñoen erresidentziako batzuk ere ibili ziren eta Juan Martin Errasti usurbildarra ere bai. Berehala Patxi Altunaren metodoa etorri zen. 1969an bere emaztea Urretxun egon zen ikastaro bat ematen. Garrantzitsua izan zen, jende asko bildu zelako eta ordu asko pasatzen zituztelako. Bertan ikasi zuen, adibidez, Henrike Knörrek.

38. Hizkuntzen eta kulturen arteko distantzia

- **Erref:** DON-212/054
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 01:49:06. **Bukatu:** 01:52:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Euskara ikastean euskaldun bihurtzea; batzuek integratzailea dela diote. Andoniren ustez hizkuntzen eta kulturen arteko distantziaren arabera izan daiteke hori. Euskara eta euskal kultura ezezagunak dira, exotikoak. Mitxelenari hizkuntzalari batekin gertatua.

39. Haurtzaroan baino euskara gehiago gaur egun Donostian

- **Erref:** DON-212/056
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 01:54:09. **Bukatu:** 01:56:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskararen bilakaera Donostian. Ezagutza eta erabilera bat ez datozen arren, bera umea zenetik erabilera ere asko hobetu dela uste du. Denda edo tabernetan euskaraz egin eta inork ez duela errespetu gutxiarekin erantzungo iruditzen zaio. Euskarak prestigio hobea du. Bere ustez egoera asko hobetu da, batzuk beti okerrera doala esateko joera izan arren.

40. Biloba mutilekin eta lagunekin hika

- **Erref:** DON-212/058
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 01:56:32. **Bukatu:** 01:57:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Bere biloba mutilekin hika egiten du; neskekin ez. Ez du arrebarik izan eta ez du noka erabiltzeko ohiturarik. Lagun-lagunekin hika. Pertsona batzuekin hika egiteko ohitura du eta beste batzuekin zuka, baina ez daki zergatik.</p>

41. Gurasoengandik jaso zuen hitanoa; ama ahizparekin noka

- **Erref:** DON-212/060
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 01:58:14. **Bukatu:** 01:59:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Gurasoek hika egiten zioten eta naturalki ikasi zuen. Amaren ahizpa beraiekin bizi izan zen urte askoan eta elkarrekin noka egiten zuten. Noka asko entzun izan duen arren, ez du praktika. Ama baserrikoa zen eta askotan baserri giroko espresioak erabiltzen zituen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com